

AISIALDI MUSIKA

Taldeak eta ordutegiak familiarekin edo/eta tutoreekin egingo den balorazio-bileraren menpe egongo dira. Bilera egin ondoren, Mindarak proposamen zehatza egingo du



DEFINIZIOA

AISIALDI-MUSIKA PROGRAMA GIZAKIDE PROIEKTUAREN BARRAUN DAGO ETA URRITIK EKAINERA BITARTEKO SAIOAK BURUTZEN DIRA. MINDARA ELKARTEAREN MUSIKA- ETA JOLAS-PROGRAMAREN HELBURUA DA, MUSIKALITATEAREN BIDEZ, ERABILTZAILEEI LAGUNTzea GARAPEN PERTSONALAREN PROZESUAN ETA HAIEN SENTIMENDUEN ETA EMOZIOEN ADIERAZPENEAN.

HELBURUAK

1. AUTOEZAGUTZARAKO BIDEA IREKIKO DUTEN BARNE-ALDERDIAK AZALERATZEKO ETA PARTEKATZEKO ESPAZIO BAT SORTZEA.
2. TESTUINGURUAREKIN MODU OSASUNTSUAN ERLAZIONATZEN IKASTEA.
3. NORBERAREN AHOTSEAN ETA PARTE-HARTZAILEEN ESKURA JARTZEN DIREN INSTRUMENTU ETA MELODIETAN ADIERAZPIDE BAT AURKITZEA.
4. ERABILTZAILEAK LEUNTZEA, ANIMATZEA, AKTIBATZEA EDO ERLAXATZEA, HAUTEMANDAKO BEHARREN ARABERA.
5. PERTSONA BAKOITZAREN GAITASUN ETA AHALMENETATIK ABIATUTA LAN EGITEA, AHALIK ETA GARAPEN HANDIENA LORTZEKO.

LAN METODOLOGIA

TALDEAK ERABILTZAILEEN INTERESEN, GAITASUNEN, BEHARREN ETA TREBETASUNEN ARABERA SORTZEN DIRA, BAI ETA ADINAREN ARABERA ERE. FAMILIAREKIN LEHEN ELKARRIZKETA IZAN ONDOREN ETA ERABILTZAILEEKIN SAIOAK HASTEAN, ERABILTZAILEAREN TESTUINGURUA EBALUATZEN DA ETA SAIOAK DISEINATZEKO HELBURU PERTSONALAK ZEHAZTEN DIRA. EGITEN DEN LANA PROFESIONAL TALDEAN LANDU ETA BALORATZEN DA MODU KOORDINATU BATEAN.

ARAUAK ETA MATERIALA

ASISTENTZIA ERREGULARRA, PUNTUALTASUNA ETA SAIOETAN ERABILTZEN DEN MATERIALAREN ZAINZA EGOKIA.



HARREMANETARAKO: USOA MARTÍNEZ
698 90 14 34 - UMARTINEZ@MINDARA.ORG

Dibertsitate Funtzionala duten Pertsonak Artatzeko Gipuzkoako Elkartea
Asociación Guipuzcoana para la Atención de Personas con Diversidad Funcional